

zakilixut

© Olariagak



Jon Gonzalo | DONOSTIA

ATZEKOZ AURRERA

Eguraldiaren menpe

Eguraldia iragartzeko tresna zahar eta berriak ikusgai dira Donostian



ARGAZKIAK: EDURNE KOCH
RADAR BATEN MAKETA. Euri kantitatea neurtzeko erabiltzen da.



HELIOGRAFOAK. Eguzki orduak neurtzeko tresna.




ITSAS ANEMOMETROA. Haizearen abiadura neurtzeko itsasontzietan erabiltzen zen tresna.



TRANSMISOMETROA. Ikuspen horizontala neurtzeko aireportutan erabiltzen da.



BEHAKETA METEOROLOGIKORAKO ESTAZIO AUTOMATIKOA. Haizearen norabidea eta abiadura, tenperatura, hezetasuna eta presio atmosferikoa neurtzen ditu.



AEROGRAFOA. Tenperatura, hezetasuna eta presioa neurtzen ditu.

Gizakia gizaki denetik meteorologiaren menpe bizi izan da, eguraldiak eragin handia baitu giza-kiaren lan eta eginkizun gehientzuenetan. Hori dela eta, eguraldiaren nondik norakoak ezagutzeko beharra izan du historian zehar. Alabaina, eguraldia iragartzeko baliabideak asko aldatu dira urteak aurrera joan ahala. Aldaketa hori Igel-doko Meteorologia Institutuak Donostiako Kutxa aretoan (Boulevard 1) paratu duen *Meteorologia denboran zehar* erakusketan ikus daiteke. «Eguraldia iragartzeko mende hasieran erabiltzen ziren tresnak eta

gaur egun erabiltzen direnak alderatu nahi izan ditugu, tresnariaren garapena oso handia izan baita», azaldu zion EGUNKARIARI Jose Ignacio Usabiaga Igeldoko Meteorologia Institutuko kideak.

Barometroak, termografoak, heliografoak, nefoskopioak, anemometroak, radarrak eta beste makina bat tresna ikus daitezke erakusketa horretan.

Baita eguraldiak sortu dituen hondamendiei buruzko bideoak ere. Besteak beste, 1983an Euskal Herrian izan ziren uholdeen inguruko bideoa. «Erakusketa-aren helburua eguraldiak giza-kiarengan duen eragina islatzea da», adierazi zuen Usabiagak. Izan ere, nahiz eta tresneria gero eta garatuagoa izan gizakia beti egongo da eguraldiaren menpe.